



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat”

2021eko martxoaren 21a
Garizumako 5. igandea (B)

Joan 12, 20-33

Jaietan Jainkoari kultu ematera joan zirenen artean baziren greziar batzuk. Hauek Galileako Betsaidako Feliperi hurbildu eta eskabide hau egin zioten: “Jauna, Jesus ikusi nahi genuke”.

Felipe Andresi esatera joan zen, eta biek, Andresek eta Felipek, Jesusi jakinarazi zioten. Jesusek erantzun zien: “Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurlean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena, Aitak ohoratu egingo du. Larri dut orain neure barrua. Baina zer esan? Larrialdi honetatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Ez horixe, honetarakoxe etorri bainaiz! Aita, azaldu zeure aintza!”

Ahots bat entzun zen orduan zerutik: “Azaldu du, eta berriro ere azalduko”.

Han zeudenetako batzuek, ahotsa entzunik, trumoia izan zela zioten; beste batzuek, ordea, aingeru batek hitz egin ziola. Jesusek adierazi zuen: “Ahots horrek ez du niretzat hitz egin, zuentzat baizik. Oraintxe da mundu honen epaiketa; oraintxe galduko du bere boterea mundu honetako buruzagiak. Eta nik, lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut denak”. Hitz hauen bidez, nolako heriotzaz hilko zen adierazi zuen.

Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurlean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du.

GURUTZILTZATUAK ERAKARRI

Jose Antonio Pagola

«Greko»-talde bat, paganoak seguruenik, Jesusengana hurbildu dira, eskari miresgarria eginez: «**Jesus ikusi nahi genuke**». Berri eman diotenean, Jesusek solasaldi biaz erantzun die, bere bizitzaren zentzu sakona laburtuz. Iritsia da ordua. Guztiek, judu eta greko, sumatu ahal izango dute laster haren bizitzak eta haren heriotzak biltzen duten misterioa: «**Ni lurretik jasoko nautenean, guztiak erakarriko ditut neugana**».

Jesus gurutzean jaso eta Golgotan gurutzean agertuko denean, guztiak ezagutu ahal izango dute Jainkoaren ezin ulertuzko maitasuna, konturako dira ezen maitasuna dela Jainkoa eta maitasuna soilik gizaki ororentzat. Gurutziltzatuak erakarriak sentituko dira. Harengan Jainkoaren Misterioa erarik gorenean agerturik ikusiko dute.

Hartarako, jakina, erospenaren doktrinaz hitz egiten entzun izana baino zerbait gehiago beharko da. Aste santuko elizkizun erlijioso batera joan izana baino zerbait gehiago. Geure barne-begiak Jesusengan behar ditugu jarri eta hunki gaitzan utzi, sumatzen dugularik gurutze hori egunez egun egindako bizitzaren azken keinua dela guztientzat mundu gizatarragoa egiteko. Bere salbazioa Jainkoagan aurkituko duen mundu gizatarragoa.

Baina, seguruenik, orduan hasiko gara Jesus zinez ezagutzen: Aitari egin dion erabateko buru-eskaintzak eta haren seme-alabentzat bizitza zoriotsuagoa eskuratzeko jasan duen nekaldiak erakarriak, Jesusen beraren deia, era ahulean bada ere, entzunen dugunean: «**Nire zerbitzari izan nahi duena betor nire ondoren, eta ni nagokeen lekuan, han egonen da nire zerbitzaria ere**».

Jesusen «zerbitzari izatean» du guztiak bere jatorria, haren eginkizunean lankide izatean, soilik haren egitasmorako bizi nahi izatean, haren urratsei jarraitzean, agertzeko, modu askotan eta keinu ia beti pobrez, nola maite gaituen Jainkoak guztiok. Orduan hasiko gara haren jarraitzaile bilakatzen.

Hona zer esan nahi duen haren bizitzan eta haren zorian bat egiteak: «**ni nagokeen lekuan, han egonen da nire zerbitzaria ere**». Hori da kristau izatea: Jesus zegoen lekuan egotea, hark egiten zuenaz arduratzea, hark zuen helmuga bera ukaitea, hura egon zen bezala gurutzean egotea. hura dagoen bezala egun batean Aitaren eskuinean egotea.

Zer-nolakoa izango ote litzateke Gurutziltzatuak «erakarritako» Eliza, soilik haren zerbitzari izateko gogoak eragina balitz, hark esku artean zituen gauzez arduratuko balitz? Zer-nolakoa izango ote litzateke Eliza, jendea Jesusengana erakarriko lukeena izango balitz?